

BALOREZKO PROPOSAMENA



Planbide aplikazioa gara, bereziki, pertsonen eguneroko antolaketan laguntzen dieguna eta haien zereginak errazten dizkieguna. Gure helburu nagusia, besteen produktibitatea eta pertsonen egunerokoa eraginkorragoa bihurtzea da.

Era berean, beste helburu bat gure bezeroen ongizatea bermatzea da. Horretarako, hitzaldiak egiten ditugu, aplikazioa ez bezala, ordaindu behar dira. Hitzaldiak, osasun mentala eta antolamenduari buruzkoak dira. Bezeroak gure aplikazioa eskuratu dezakete App Store eta Google Play plataformetan.

Planbidek tresna adimendunak eta erabiltzeko errazak diren zerbitzuak eskaintzen ditu, planifikatzen, antolatzen eta zure zereginak modu eraginkor batean egiteko laguntzen dizutenak. Hona hemen bere ezaugarri nagusiak:

- Zereginak gestionatzeko zerrenda pertsonalizatuak eskaintzen ditu zure egunerokotasun beharrei egokitzen direnak. Gainera, zerrenda hauek automatikoki, zure zereginak planifikatzen dituzte zure beharren eta lehentasunen arabera.
- Oroigarri adimenduak konfigura ditzazkezu, hau da, data limiteren bat edo bileraren bat ez ahazteko, alertak eta notifikazioak jarri ditzazkezu, eta data hori iritsi baino lehen, Planbide automatikoki abisatuko zaitu.
- Aplikazioa, zure zereginak eta data garrantzitsuak egutegi eta agenda batean planifikatzen ditu zure egunak, asteak eta hilabeteak ondo bisualizatzeko.
- Lehentasunak eta helburuak jartzen ditu, hau da, zure eginkizunak sailkatzen ditu garrantziaren eta urgentziaren arabera benetan garrantzitsua den horretan arreta jartzen lagunduz. Gainera, zure aurrerapenak, tresna pertsonalizatuekin jarraitzen ditu zenbat aurreratu duzun eta ea zure helburuak bete egin dituzun ikusten laguntzen dizkizutenak.
- Planbide zure produktibitatearen analisiak astero egiten ditu, gero emaitz horiekin, zure errendimenduari buruzko informeak egiteko eta emankorragoa zaren uneak identifikatzeko. Hortaz gain, grafikoak eta estadistikak ere erabiltzen ditu, zure ohiturak aztertzeke eta zuk hobetzeko erak aurkitzeko.
- Aplikazioan bertan, laguntzaile birtual bat instalatuta dago. Edozein zalantza izanez gero, laguntzaile horrengana jo ahal izango duzu. Modu pertsonalizatuan argituko ditu zalantzak, laguntzailea aplikazioak zuri buruz jasotzen dituen datuen bidez oinarrituta dagoelako. Gainera, zeregin batean edo sortu zaizun arazoren batean laguntza behar baldin baduzu, laguntzailea aholkuak eta irtenbideak ematen dizkizu, baita zuri moldatuak daudenak ere.

BALOREZKO PROPOSAMENA



Planbiden ditugun bi helburu nagusi, pertsonen haien denbora ondo kudeatzen ikastea eta haien betebeharrak ondo antolatuta edukitzea da. Hortaz gain, jendea haien produktibitatea hobetzea nahi dugu, hau da, erabiltzaileen eguneroko zereginetan duten eraginkortasuna eta proiektuak behar bezala osatzeko duten gaitasuna handitzea. Gainera, aplikazioarekin bilatu nahi duguna, erabiltzaileek bizitza lasaitasun gehiagorekin hartzea da. Bereziki garrantzitsua iruditzen zaigu haiek konturatzea denbora behar bezala optimizatu eta erabiltzen badute, gauza guztientzako denbora ematen duela kezkatu egin gabe.

Gure aplikazioa, bereziki, antolatzen jakitearekin eta denbora behar bezala kudeatzen ez jakitearekin arazoak dituzten pertsonen zuzenduta dago. Hala ere, Planbide egunez egun antolatzeko diseinatuta dagoenez, edozein pertsonentzat ezin hobea da bere erabilpena. Horrez gain, edozein adinetako jendea (*12 urtetik gora*) deskargatu dezakete, bai gazteek eta bai helduek. 12 urtetik gora gomendatzen dugu, izan ere, adin hortatik beherako ume gehienek ez dituzte gailu elektronikorik, arazoak ekartzen dituelako.

Planbide aplikazioa ez dugu guk sortu, baizik eta hornitzaile batzuk. Hornitzaile horiek gure aplikazioa aurrera eramateko beharrezkoak diren zerbitzu/baliabideak eskaintzen dituzte. 2 izango dira gure hornitzaile nagusiak:



- **Software garatzaileak:** aplikazioaren funtzionamendurako beharrezkoak diren programeen garapena.



- **Ordenagailuak eta zerbitzariak:** Garapen prozesuan beharrezkoak diren material teknologikoak.

Gainera, nahiz eta Planbidek ez izan denda fisiko bat, bulego bat dauka aplikazioan lan egin ahal izateko. Leku hau, Donostian kokatuta dago, zehazki Groseko auzoan. Bertan egingo dugu lana. Hau izango da gure [bulegoa](#), 300€ ordainduko ditugu hilabetero bulegoa alokatzeko.

Era berean, Planbide euskeraren erabilpena sustatzen du. Gaur egungo aplikazio gehienek edukiak, ingelesez, gaztelaniaz edo beste hizkuntza predominatzaile batzuetan daude erabilgarri, beste hizkuntza ahulago batzuk alde batera utzita. Kasu honetan, euskara. Horregatik, ideia ona iruditu zaigu Euskarari nagusitasun gehiago ematea gure aplikazioaren bitartez.

Gure enpresak, Garapen Iraunkorreko Helburuekin (GIH) kontzientzia hartu du, helburu hauek oso garrantzitsuak dira gure etorkizunean bizimodu hobeto bat izateko. GIH, mundu mailako pobrezia desagerrarazteko, planeta babesteko, eta denok bakea edukitzeko enpresak betetzeko diseinatuta dauden helburuak dira.

BALOREZKO PROPOSAMENA



Gure enpresak helburu horietatik, hauek betetzen ditu:

- Kalitatezko hezkuntza. Doainik denez eta adimen tresnak dituenek, edozein gauzetan lagun dezake. Horregatik, doain hezkuntza betetzen du, tresna adimenarengatik edozer gauz ikasi daitekeelako. Horrez gain, aplikazioa euskaraz erabili daiteke, eta horrekin euskararen erabilera bultzatzen dugu.
- Osasuna eta Ongizatea. Gure aplikazioaren bidez, jendearen ongizatea hobetzen da, haien bizitzak antolatzen dutenez, gauzak lasaitasun gehiagorekin hartzen dituzte. Era berean, osasun mentalari buruzko hitzaldiak egiten ditugunez, gure bezeroen ongizatea hobetzen dugu.



Egia da, merkatuan aplikazioa asko daudela antolatzen eta denbora ondo kudeatzen laguntzen dutenak, adibidez, Todoist, Asana eta Notion. Hala ere, Planbide eskaintzen dituen tresnak eta zerbitzuak besteengandik bereizten dira, modu pertsonalizatu batean lan egiten duelako, hau da, pertsona bakoitzarentzat moldatzen diren aholku eta plan desberdinak egiten ditu. Horrez gain, euskeraz erabili daiteke, honek ere besteengandik desberdintzen du, aplikazio gutxi euskeraz daudelako.

Hori guztiaz gain, Planbiden lehengo aldiz saioa irekitzean, bezero bakoitza bere saioa ireki beharko du, bere esperientzia eta aplikazioak emango duen arreta pertsonalizatua izateko. Saio horren bidez, bezeroa gehiago ezagutuko dugu zerbitzu pertsonalizatuagoa eskaintzeko.

Bukatzeko, Planbide edozein gailu mugikorretan deskargatu dezakezu. Gainera, plataforma guztietan aurkitu dezakezu. Lehen aipatu dugun bezala, Androiden eta Apple-en. Aplikazioa dohainik eskaintzen dugu; izan ere, jende gutxi ordaintzen du aplikazio bat instalatzeko. Horrela izanda, bezeroak erakarri egiten ditugu. Baina enpresa bat gure aplikazioa deskargatu nahi izanez gero, ordaindu egin beharko dute. Ordaindu beharreko kantitatea erabiltzaile kopuruetatik aterako da. Ez da berdina izango enpresa bat 20 edo 200 langile izatea. Ordainketa horren truke, publizitatea eskainiko diegu enpresei. Gainera, aplikazioaren barruan zerbitzu espezifiko batzuegatik, hilabetero kuota bat kobratzen diegu bezeroei. Bestalde, hitzaldiak egiterakoan ere diru kantitate bat kobratuko dugu. Modu horretan, irabaziak lortu egingo ditugu.